



**etiketa  
berdea**



GREEN LABEL EVENT

Elkarbizitzan, berdintasunean eta jasangarritasunean  
oinarritutako lasterketen aldeko manifestua



## HELBURU NAGUSIAK/MANIFESTUAREN ARDATZA

Manifestu honen sinatzaileok azken urteotan gizarteak eraldaketa bat sufritu duela sentitu dugu. Azkarrago bizi gara eta honek sarritan norbanakoa gizarte edo komunitatearen aurretik jartzea ekarri du. Indibidualismoak indarra hartu du. Aldaketa hauek kirolean ere nabarmendu dira.

Guk prozesu honetan mendi lasterketek jasan duten eboluzioa aztertu dugu eta gizakiok, kirolariok kasu honetan, ingurunearekin, naturarekin, eta beste kirolariekin dugun harremana.



Mendia txikitatik bizi eta arnastu dugun kirolariak gara gutako asko. Beste askok mendia beranduago ezagutu dute. Baina mendia deskubritu genuen eta gerora korrika hasi ginen gehienok. Bilakaera honetan menditik mugitzeko era aldatu zen arren beti izan ditugu presente mendizaletasunaren baloreak. Elkartasuna, ingurumenarekiko errespetua, umiltasuna, jasangarritasuna, beste kirolarienganako begirunea...

Egun, gizartearen eboluzioari loturik, lasterketen norabidea ere aldatu dela igarri dugu. Mendi lasterketak asko mediatizatu dira. Modan jarri direla esan dezakegu, eta honek guk ezagutu genituen baloretako asko bidean galtzea eragin du.

Lasterkari izateaz gain lasterketa antolatzaile ere bagara gutako asko. Eta sinatzaileok lasterketa asko profesionalizatu direla eta beste eredu bat posible dela uste dugu.

Eta diruak, irudiak, sare sozialek, internazionalizazioak... gizagabetze puntu bat sortu dezake gure ustez.

Zertarako sortu ziren mendi lasterketak? Gure mendiak edozein eratarata tratatu ditzakegu "garapena"ren izenean? Elkartasunezko edo etsaitasunezko harremana beharko litzateke gure ondoan lehiatzen den kirolariarekin? Galdera hauek guztiak airean daude eta norbanakook zintzotasunez erantzuteko sasoia da.

Guk geuk egin dugu honen inguruko gogoeta eta horrek eraman gaitu lasterketa etiko batek beharko lituzkeen zenbait iradokizun proposatzera. Lasterketa etiko bat naturarekin eta beste kirolariekin begirunezko harreman bat duena dela iruditzen zaigu, kirol arloko interes eta interes ekonomiko hutsen gainetik. Lasterketa etiko bat lasterketa bat baino gehiago da.

# ETIKETA BERDEA

Lasterketa etiko hauek identifikatu eta indartzeko asmoz etiketa edo label bat sortzea proposatzen dugu. Iradokizun hauek betetzeko apustua egiten duen proba "Etiketa Berdeduna" edo "Green Label" proba izango litzateke. Balio etiko batzuk defendatzen dituen lasterketa eta hauek betetzeko hautua hartzen duen antolakuntzari emango diogu etiketa hau. Gure ideia, kirol helburu soiletatik harago, lasterketa jasangarriago eta errespetuzkoago bat sortzeko konpromisoa hartzen duten lasterketen ahaidetze bat sortzea da. Hasieran gutxi izango gara seguruenik baina baliteke denborarekin gure mugez gaindi zabaltzea eta helburu polit hau urrutiraino heltzea. (Hortik ingelesezko terminologia ere gehitzearen ideia)



Etiketa Berdedunak ez dira liga bereko lasterketa multzo bat. Lasterketa Berdeen ahaidetze honek antolatzaile eta korrikalarien aldetik konpromiso bat besterik ez du suposatuko. Gure gizartea eta kirol hau beste norabide baten bideratzeko konpromisoa. Herrietako auzolana berriro indartzea nahi dugu kirol enpresa handiek bere agintea markatu duten garai honetan. Irudiak eta dirua ez dira garrantzitsuena gure kirolean. Dekadentzian dauden mendizaletasunaren balioak berreskuratu nahi ditugu eta gure ingurumena zaindu eta babesteko ahal bait pausu gehien eman. Inork gogoratzen al ditu duela 15 urteko lasterketetan korrikalari bat erori eta bestek ez laguntzerik? Edota asfaltozko lasterketa bailitzan mendian gel edo botila bat botatzerik? Eta dopinik? Hau guztiau guk nahiko genukeena baino ohikoagoa bilakatzen ari da gaur egun. Konpetizioaren baloreek itzal handia egiten diote lehen berezkoak genituen printzipioei.

Gure ondorengoei dagokien altxor bat defendatu nahi dugu.

Ahaidetze hau aurrera eramateko zenbait ideia proposatuko ditugu azken eranskinean. (Ikusi eranskina)



# DEKALOGOIA

## 1. Natura zaintzea eta gure urrats ekologikoa gutxitzea izango da helburu nagusia.

**1.1** Parke Natural (PN) batetik, Naturagune Babestu (NB) batetik edo ekologikoki zaugarria den ingurune batetik pasatzen diren parte-hartzaile kopurua gehienez ere **500 pertsonakoa** izango da. Teknikariek naturaguneak babeste aldera kopuru hori murriztea erabakiko balute hala egingo da.

**1.1.1** Gazteen lasterketa edo bigarren lasterketa edo martxa bat antolatzea oso aproposa ikusten dugu betiere naturaguneetako babesleku horiek eta PNak zaintzeko premisa errespetatuz. Beste ibilbide bat sortzea aukera on bat da 1.1 puntuan azaltzen dena oso kontuan hartuz.

**1.1.2** 1.1 puntuan aipatu guneak ez direnean, lasterkari kopurua handitu ahal izango da betiere jasangarritasuna kontuan hartuz eta ingurumena ez kaltetzeko neurri eta konpromisoa erakutsiz. (Gehienez 1.000 lagun)

**1.2** Probaren Ibilbidea Parkeko edo Diputazioko teknikariek eta basozainekin adostuko da betiere zaugarri diren eremuak eta babesgune bereziak ibilbidetik kanpo utziz edota handik igarotzea ahalik eta gehien murriztuz. (Parke Naturalaletako babes legedia oso kontuan hartuko dugu. Adibidez drone eta helikopteroen erabilera ahalik eta gehien murriztuko dugu)

**1.2.1** Denbora tarte labur baten proba bi edo gehiago suertatuko balira Parke Natural edo Naturagune Babestu berean, antolatzaileek proba datez aldatzeko ahalegina egingo dute, betiere ingurumenaren onerako. Beharrezko balitz probak urte biko tartearekin txandaka egitea proposatuko da.

**1.3** Antolakuntzak beharrezkoak diren ibilgailuak bakarrik baimenduko ditu ibilbidean zehar eragin ekologikoa gutxitze aldera. Ikusleei ere irmo gomendatuko die hauek ahalik eta gutxien erabiltzea.

**1.4** Ibilbidea probaren aurreko egunean markatuko da eta probaren biharamunean beranduenez batu. Probaren hurrengo astean ibilbide guztia berrikusiko da gera daitezkeen hondakinak bilduz.

**1.5** Ibilbidea markatzeko erabiliko diren materialak biodegradagarriak izango dira. Plastikoa ekologikoa, kartoi papera...

**1.6** Antolakuntzaren ardura izango da ekologikoki zaugarrienak diren eremuak zaintzea. Ikusleei toki hauetan ez pilatzeko aholku irmoa luzatuko die.

# DEKALOGOIA

**1.7** Anoaguneetan gaikako bilketa egingo da eta ahal den guztia birziklatzea bermatuko da.


**1.8** Parte-hartzaileen bat ingurunea kaltetzen (zaborren bat botatzen esaterako) ikusiz gero dortsal zenbakia hartu eta jarraian probatik **kaleratzea** suposatuko du.

**1.9** Kontu guztiak itxi eta gero lasterketek irabaziak edukiko balituzkete hauen %7 herriko naturagune edo inguruko PNaren onura ekarriko duen proiektu baterako bideratuko da.

**1.9.1** Gizarte onura helburu duen beste edozein proiektutara bideratutako partida bat dagoen kasuetan puntu honen salbuespena ulergarri ikusten dugu. (Gobernuz kanpoko erakundeak, alimentu bankuak, elkartasun mugimenduak...)



# DEKALOGOIA



## 2. Korrikalari guztiak trataera berdina izango dute.

**2.1** Korrikalariei ez zaie lasterketetara etortzeagatik ordainsari "finko"rik emango. Antolakuntzak hala erabakiko balu gonbiteak luzatu ahalko ditu, hau da, dortsal batzuk oparitu ahalko ditu lasterketaren promozio helburuekin. Kanpotik datozen korrikalariei beraientzat bidaia defizitariora izan ez dadin kostu batzuk ordaintzea posible litzateke betiere km bakoitzeko kopuru berdin bat guztientzat eta orekatua izango dena. Kostuak ordaintzea ez da ezkutuko finko bat ordaintzeko bide bat. Antolakuntzaren esku egongo da bertakoak ez diren korrikalariei egonaldiak ordaintzeko aukera. Korrikalari hauek antolakuntzaren esker ona bueltatzeko lasterketei promozio eta elkarkidetzaren lanetan laguntzen jarrera proaktiboa izatea aurreikusten da.

**2.2** Eliteko korrikalari deritzenek ez dute pribilegiarik edukiko. Ez dute sailkapen, ibilbide edota sari desberdinik izango. Beste txapelketa bateko rankingaren sari banaketa suertatzen den kasuan, zirkuituak berak bere gain hartu beharko ditu sariaren zenbatekoak, ez lasterketa horretan parte hartzen duen korrikalariak bere dortsalaren bidez.

**2.2.1** Antolakuntzak dortsalen **%15** asko jota gorde ahalko ditu era guztietako gonbidatuentzako. Besteak izen-emate hurrenkera edo zozketa argiz esleituko dira.

**2.2.2** Probaren arrakasta, dortsal kopuru txikia... dela eta, herriko kirolariei parte hartzeko aukera asko zailtzen zaien kasuetan, antolakuntzak dortsal batzuk gorde ahal izango ditu hauen parte-hartzea errazteko (beraurentzat izen-emate data aurreratuz adibidez). Beterie modu argi eta justu batez.

**2.3** Ez dugu diruagatik korrika egiten. Sariak orotara, maila guztiak kontuan hartuta, ez dute **3.000 euroko** langa gaindituko.

**2.4** Dortsal bat lortzea ekonomikoki guztiontzat eskuragarri izan dadin beronen salneurria km bakoitzeko **0,5 eta 1,5 euro** bitartekoa izango da. 20 km-ko lasterketa baterako 10 eta 30 euro bitartean. (Salbuespen gisa km bakoitzeko **2 euro** arte ordaintzea onartuko da korrikalariak jasoko duen poltsa edo ordainak dortsalaren balioa gainditzen badu)

**2.4.1** Kilometro bertikalen kasuan, ibilbidearen ezaugarri teknikoak kontuan izanda, arau hau salbuespena egongo da. Hala ere salneurria orekatua eta proportzionala izan beharko da.

**2.5** Azken korrikalariari lehenari besteko errespetua zor zaio. Kontrol denbora tarte barnean datorrelarik, ez da azken hau sartu arte denbora etengo, arkurik batuko ezta balizarik kenduko.

**2.6** Ez da ideologia, sexu edo identitateagatik korrikalariik gutxiagotuko edo baztertuko.

# DEKALOGOIA

## 3. Lasterketa etiko hauek elkarbizitza baikor bat bultzatuko dute.

### 3.1 Elkartasuna eta kiroltasuna

Konpetizio hutsetik harago beste kirolarienganako elkartasuna oso garrantzitsua da.

**3.1.1** Korrikalari guztiak egoera larrian edo beharrezan dauden beste korrikalarietara sorospena emateko **betebehara** izango dute. Sorospena, abisua ez emateak edo laguntzari entzungor egiteak zuzenean **kaleratzea** eragingo du.

**3.1.2** Umeen lasterketa. Umeen lasterketa egiten denean balore ez konpetitiboetan hezteak izango da helburu nagusia. Denek izango dute sari bera eta parte-hartzea gailenduko da emaitzaren gainetik.

### 3.2 Aniztasuna

Gizartearen zein lasterketa hauen helburua izango da aniztasunean aurrera egitea.

**3.2.1** Gaur egun sailkapenak era binario baten -hau da gizon eta emakume- banatuta dauden arren ez da identitate hauetatik kanpo sentitzen den inor baztertuko. Parte-hartzaile bakoitza identifikatzen den generoaren kategorian parte hartzea izango da helburua. Hala eskatuko balute eta posible balitz sailkapen bi hauetatik kanpo legokeen beste sailkapen bat izatea ez genduke gaizki ikusiko.

**3.2.2** Izen-emate momentuan gaur egun ez dago gizon eta emakume artean aukeratzea besterik. Sexu aukerari 3 laukitxo jartzea gomendatzen dugu. Gizon/Emakume/Ez binarioa.

**3.2.3** Lasterkarietara ematen den detailetxoaren sexuaren arabera, adibidez kamiseta bat, "emakume/gizon" beharrean "estua/zabala" bereizketa egitea gomendatzen da.

**3.2.4** Emakumezko edo gizonezko sentitzen ez den horri bakarkako aldagelaren bat bilatzen ahaleginduko da antolakuntza berak hala eskatzen badu.

# DEKALOGOIA

**3.2.5** Garaikurrak genero ikuspegitik ez estereotipatuak izatea bilatuko da.

**3.2.6** Egunean zehar girotzeko jartzen den musika ez sexista izatea bilatuko da. Eta esatariak edo speaker-ak iruzkin sexistak edo arrazistak edo kutsu politikodunak saihestuko ditu.

**3.2.7** Infografian, karteletan, sare sozialen edukietan... aniztasuna ikusarazten eta genero ez estereotipatua izan dadin saiatuko dira antolatzaileak.

## **3.3 Inklusioa**

Ezgaitasun funtzionalen bat duen kirolarien parte-hartze eta inklusioa bultzatuko da.

**3.3.1** Hitzaldi teknikoan zeinu hizkuntza erabiltzen ahaleginduko dira antolatzaileak.

**3.3.2** Ezgaitasun funtzionalen bat justifikatzen duen parte-hartzaile horri **%10eko** beherapena egingo zaio izena ematerako momentuan.

**3.3.3** Ezgaitasun funtzionala duten pertsonen behar bereziren bat badute antolakuntzatik egonaldia ahalik eta eramangarriena izan dadin laguntza eskainiko zaie.

## **3.4 Jasangarritasuna**

Lasterketa etikoak ahalik eta jasangarrienak izaten saiatuko dira.


**3.4.1** Antolakuntzak anoaguneetako lehengaiak eta bestelakoak... bertakoak, ekologikoak, errespetuzkoak... izan daitezela lehenetsiko du. Lan erraza ez dela jakitun eta zailtasunak zailtasun, erosketak ahal den neurrian herrian bertan edo inguruko komertzioetan egiten ahaleginduko dira komertzio lokala indartzeko asmoz.

**3.4.2** Babesleen izaera ere ahalik eta etikoena izatea bilatuko da. Kontraesan bat litzateke Etiketa Berdedun proba hauen babesle nagusiak enpresa kutsagarrienak izatea. (Kontziente gara hau guztia erdiesteia ez dela lan erraza)

**3.4.3** Lasterketa ondorengo saria kamiseta edo antzekoren bat den kasuetan, ahalik eta marka etikoenak eta jasangarrienak izan daitezen ahaleginduko dira.



# DEKALOGOIA



**3.4.4** Hitzaldi teknikoan ingurumenaren gaineko ardura eta begirunea indartzeko mezu eta aholkuak luzatuko dira.

## **3.5 Errespetua**

**3.5.1** Auzolanean eraikitzen diren proiektu txikiak dira Etiketa Berdedun lasterketak, halere esfortzu handia eskatzen dute. Antolakuntzako boluntarioek lan handia egiten dute eta boluntarioen doako parte-hartzea ezinbestekoa da. Gauza asko gaizki egiten dira sarri baina borondatea beti izaten da ona. Lasterketa egunean lanean ari diren boluntario guztiak errespetuz tratatzea merezi dutela uste dugu. Euren partetik errespetuzko erantzun bat jasotzea suposatuko duen ekintza; alde biko errespetua.

**3.5.2** Lasterketak toki pribatuetatik, basoetatik, larreetatik... pasatzen dira askotan. Bertan bizi eta lan egiten duten pertsonak daude, artzainak esaterako. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu lasterketa egunean zein ibilbidea ezagutzeko aurreko egunetan egiten diren korrikaldietan guzti hau presente izatea.

**3.5.3** Aurrerago esandako eran ez dago korrikalari on eta txarrik guretzako. Denek merezi dute begirune bera. Kirol gaitasunetatik harago korrikalari guztiak merezi dute guretzako errespetu bera. Gauza bera eskatzen dugu kirolari-kirolari eta kirolari-ikusle harreman guztietan.

**3.5.4** Ingurumenarekiko errespetua, antolatzaile, ikusle eta korrikalari guztion betebeharra da.

## **3.6 Aukera berdintasuna**

Parte-hartzaile guztiak aukera berdina izan ditzaten eta segregaziorik egon ez dadin sektore zaugarrienen aldeko neurri batzuk hartuko dira.

Langabetua den, ezgaitasunen bat erakusten duen edo ikasle den horri **%10eko beharapena** egingo zaio izena ematerako garaian. (Betiere justifikatuta egon beharko da)

## **3.7 Norbanakoaren identitatea**

**3.7.1** Estatu edota berezko selekzio gabeko nazio baten parte sentitzen den korrikalariak bere eskubidea izango du berau ordezkatzeko eta bere sentitzen dituen ikurrak aske erakusteko, eta hauek onartuak izateko.

# DEKALOGOIA

**3.7.2** Izen-emate webgunean gure nazio aukera agertzen ez den kasuetan aukera hau hutsik uzteko edo “beste bat” adierazten duen laukitxoak jartzeko aldarria egiten dugu.

**3.7.3** Antolakuntzak bertako hizkuntza lehenetsiko du hala erabakitzen badu. Gutxitua den kasuetan bereziki aldeko bultzada bat ematea ekintza baikor legez ikusten dugu.

**3.7.4** Inguruneko, bailarako edo herriko ondare kulturala indartze eta ezagutze aldera ekintza bereziak antolatzea proposatuko da. Adibidez: artzainen lana goraiatu, ondare-gune diren tokiak sustatu eta erakutsi, ibilbidean zehar pasatzen diren tokien toponimia berreskuratu...





## AHAIDETZEA/1. ERANSKINA

Etiketa Berdedun probek, antolatzaile, kirolari zein babesleen partetik konpromiso bat eskatzen du. Kode etiko horren baitan badaude puntu batzuk momentuz aholku modura planteatzen direnak; izan ere, egungo egoera aztertuta ez da erraza hauen bideragarritasuna bermatzea epe laburrean. Beste batzuk ordea hasieratik nahitaez bete beharrekoak direla uste dugu.

Etiketa Berdedun proba hauek aterki beraren babesean batzeak ez du konpromiso hauetatik haragoko loturarik suposatuko. Bai ordea onurarik, jarraian azalduko den moduan.

Etiketa hau erregistratu egingo da, hau da Copyright bat izango du eta aurrerago webgune bat sortuko da.

Gerora batzorde bat sortuko da. Batzorde horretan lasterketa bakoitzak ordezkari bat izango du. Proiektu hau diruz lagunduko duen babesle etiko bakoitzak ere inplikazio mailaren arabera ordezkari eskubidea izango du. Hiru aportazio kopuru jarriko ditugu eta hauek zehaztuko dute bozka kopurua (boto bat, erdia edo herena).

Babesle edo laguntzaile hauengandik lortutako diruarekin diru funts bat izatea aurreikusten da. Inork ez du proiektu honetatik etekin pertsonalik aterako.

Diru funts hau zertarako?

Diru funtsa Etiketa Berdea duten probei ondorengo bermatzeko erabiliko da:

- Erantzukizun Zibileko aseguru bat.
- Galera ekonomikorik izatekotan ahalik eta erreperatu arte babes ekonomiko modura.
- Webgune edo erregistratzeak ekar ditzakeen gastuetarako.
- Soberakinik balego naturaguneak zaindu eta hobetzea ekarriko lukeen edozein ekimen sozialerako.

Ahaide diren lasterketen artean, hau da Etiketa Berdea duten lasterketen artean, elkarlana sustatuko dugu promozioan, antolakuntzan, logistikan... elkarri laguntza eskainiz.





 etiketa  
berdea



green label event

653 745 838

*etiketaberdea.eus*

*etiketaberdea.com*

*etiketaberdea@gmail.com*

